

2023ko urtarrilaren 1ean, Euskal AEko administrazioetako enplegua 146.968 pertsonakoa izan da, hau da, % 0,2ko igoera izan da

2017. urtearekin alderatuta, urteko batez besteko langile kopuruak 13.000 pertsonako igoera izan zuen

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko administrazioek (Estatuko administrazioaren eta Gizarte Segurantzako Sistemaren mendeko langileak kontuan hartu gabe) 146.968 langile zituzten lanean 2023ko urtarrilaren 1ean. Beraz, Euskal AEko administrazioetako landunen kopuruak % 0,2ko igoera izan du aurreko urtearekin alderatuta.

Sexua kontuan hartuta, egiturak egonkor jarraitu du. Zehazki, 93.804 emakume aritu ziren lanean Euskal AEko administrazioan 2023. urtean (% 63,8, hau da, 2022an baino 2 hamarren gutxiago). Gizonak, berriz, 53.164 izan ziren, hau da, % 36,2 (% 0,7 gehiago). 2018-2023 aldian, administrazioan diharduten emakumeen kopurua % 11,1 igo da.

Euskal administrazio publikoetako enplegatuak urtarrilaren batean, sexuaren arabera. 2018-2023

	2018		2019		2020		2021		2022		2023	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	134.925	100,0	139.569	100,0	139.885	100,0	142.526	100,0	146.636	100,0	146.968	100,0
Emakumeak	84.461	62,6	88.113	63,1	88.215	63,1	90.909	63,8	93.858	64,0	93.804	63,8
Gizonak	50.464	37,4	51.456	36,9	51.670	36,9	51.617	36,2	52.778	36,0	53.164	36,2

Data 2023ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Ezaugarri hori administrazio bakoitzean aztertuta ikus daitekeenez, Eusko Jaurlaritzak eta haren mendeko erakundeek emakume enplegatu guztien %71,5 bildu dituzte. Feminizazio-tasa % 50etik gorakoa izan da administrazio guztietan, eta, berriz ere, Eusko Jaurlaritza nabarmendu da, % 69,8ko tasarekin. Haren atzetik, foru-aldundiak kokatu dira, % 59,8ko tasarekin. Toki-erakundeak hamar puntura kokatu dira, eta, kasu horretan, gizonen eta emakumeen proportzioa ia bera izan da: gizonak % 50,8 dira, eta emakumeak % 49,2.

Egitura Euskal AEko administrazioetan, esparru arautzailearen arabera

2023ko urtarrilaren 1ean, **funtzionarioak** Euskal AEko administrazio publikoetako enplegatu guztien % 62,7 ziren, hau da, aurreko urtean baino zortzi hamarren gehiago (% 1,5eko igoeraren ondoren), eta % 36,3 **langile lan-kontratadunak** (bi kasuetan, Osakidetzako estatutupeko langileak barnean hartuta). Gainerako % 1a **goi-kargudunak** ziren.

Euskal AEko administrazio publikoetan langile enplegatuak, esparru erregulatzailearen arabera. 2023/01/01

	Guztira	Eusko jaurlaritza eta mendeko erakundeak	Foru aldundiak eta mendeko erakundeak	Toki-erakundeak eta mendeko erakundeak	Gainerako erakunde publikoak
Guztira	146.968	96.122	12.268	27.336	11.242
Goi karguak	1.413	338	214	691	170
Funtzionarioak guztira	92.140	65.780	7.520	15.799	3.041
Funtzionario finkoak	62.424	47.392	4.378	8.529	2.125
Bitarteko funtzionarioak	29.716	18.388	3.142	7.270	916
Lan kontratadunak guztira	53.415	30.004	4.534	10.846	8.031
Lan kontratadun finkoak	18.300	6.790	2.421	5.441	3.648
Aldi baterako lan kontratadunak	35.115	23.214	2.113	5.405	4.383

Data 2023ko Abenduaren 21a


Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Enpleguaren **behin-behinekotasunari** dagokionez, langileen % 54,9 **finkoak** ziren, funtzionarioak, lan-kontratadunak eta estatutupeko finkoak barnean hartuta.

Bestalde, *bitarteko funtzionarioak* % 20,2 izan ziren, hau da, aurreko urtean baino lau hamarren gehiago, % 7,9ko igoeraren ondoren. Bitarteko funtzionarioen bilakaera hori Euskal AEko administrazio guztietan gertatu da, baina esanguratsuagoa izan da toki-erakundeetan (% 9,9) eta aldundietan (% 9,7). Bestalde, *aldi baterako langile lan-kontratadunen* proportzioak % 3,9ko jaitsiera izan du aurreko urtekoarekin alderatuta, eta % 23,9koa izan da. Administrazio guztiek beherakada bat izan dute kategoria horretan, eta foru-aldundiak eta haien mendeko erakundeak nabarmendu dira, % 7,4ko jaitsierarekin. Haien atzetik, toki-erakundeak eta haien mendeko erakundeak kokatu dira, % 6,1eko jaitsierarekin.

2023ko urtarrilaren 1ean, *bitarteko funtzionarioak* eta *aldi baterako langile lan-kontratadunak* guztien % 44,1 ziren, urtetik urtera % 1,2ko igoera izan ondoren.

2023ko urtarrilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailea



Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Langileen banaketa, administrazio motaren arabera

2023ko urtarrilaren 1ean, Euskal AEko administrazioioko 146.968 enplegatuen % 65,4k Autonomia Erkidegoko administrazioan ziharduten, % 18,6k toki-erakundeetan, % 8,3k foru-aldundietan eta % 7,6k Unibertsitatean, fundazioetan eta beste erakunde publiko batzuetan. Azken urtean, igoerarik handiena gainerako euskal erakundeetan (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta toki-erakundeak salbuetsita) eta toki-erakundeetan gertatu da (% 1,2koa eta % 1ekoa, hurrenez hurren). Gainerako administrazioetan, berriz, langileen kopurua ia ez da aldatu aurreko urtearekin alderatuta.

Langileen urteko batez besteko kopuruak 2017. urteaz geroztik izan duen bilakaera aztertuz gero ikus daitekeenez, Euskal AEko administrazioetan diharduten pertsonak 13.281 gehiago izan dira, eta batez besteko tasa metagarria % 1,6ra iritsi da. Balio absolutuetan, **Eusko Jaurlaritza** eta haren mendeko erakunde guztietan diharduten langileak 9.377 gehiago izan dira, % 1,7ko batez besteko aldakuntza metagarriarekin. **Gainerako erakunde publikoak** (Euskal Herriko Unibertsitatea, fundazioak eta elkarte publikoak, besteak beste) bigarren tokian geratu dira balio absolutuetan, eta 1.524 langile gehiago izan dira, % 2,5eko batez besteko aldakuntza metagarriarekin. **Foru-aldundiak** hirugarrenak izan dira, 1.040 pertsona gehiagorekin eta % 1,5eko batez besteko tasa metagarriarekin. Azkenik, **toki-erakundeak** % 0,9ko tasa izan dute, 1.340 pertsona gehiagorekin.

Euskal herri administrazioetan batez besteko pertsonal enplegatua, entitate-motaren arabera. 2017-2022

	2017		2018		2019		2020		2021		2022		2022 / 2021	BBMT 2022 / 2017 (%)
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
Euskal administrazioak, guztira	132.348	100,0	136.285	100,0	137.373	100,0	140.411	100,0	144.068	100,0	145.629	100,0	1,1	1,6
Eusko Jaurlaritza	86.047	65,0	88.210	64,7	88.457	64,4	91.230	65,0	94.077	65,3	95.424	65,5	1,4	1,7
Foru-aldundiak	11.181	8,4	11.668	8,6	11.836	8,6	12.080	8,6	12.319	8,6	12.221	8,4	-0,8	1,5
Tokiko izakundeak	25.573	19,3	26.114	19,2	26.504	19,3	26.325	18,7	26.598	18,5	26.913	18,5	1,2	0,9
Gainerako erakunde publikoak	9.547	7,2	10.293	7,6	10.576	7,7	10.778	7,7	11.074	7,7	11.071	7,6	0,0	2,5

BBMT: batez besteko bariazio metatuaren tasa

Data 2023ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Aurreko urtearekin alderatuta, 2022. urtean administrazio publikoetan lan egin zuten langileen batez besteko kopuruak % 1,1eko igoera izan zuen. Tasa hori aztertutako aldiko batezbesteko metagarria baino handiagoa da, eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko langileen % 1,4ko igoera nabarmendu da.

Langileen banaketa, lurraldearen arabera

Lurralde historikoei dagokienez, ia ez da aldaketarik gertatu lurralde-banaketetan. Bizkaiak enplegatutako pertsona guztien % 48,8 bildu ditu, Gipuzkoak % 29,9 eta Arabak % 21,3. Beraz, banaketak oso aldaketa gutxi izan ditu aurreko urtekoarekin alderatuta.

Euskal AEko administrazioetan pertsonal enplegatuen lurraldebanaketa. 2023/01/01

	Guztira	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskal administrazioak	146.968	31.365	71.715	43.888
Eusko Jaurlaritza	96.122	20.593	47.498	28.031
Foru-aldundiak	12.268	3.745	5.501	3.022
Tokiko izakundeak	27.336	5.080	13.022	9.234
Gainerako erakunde publikoak	11.242	1.947	5.694	3.601

Data 2023ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Administrazio publikoen direktorioa

Ohar metodologikoa: Administrazio Publikoen Direktorioaren esparrua osatzen dutenak honako hauek dira: Euskal AEko Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta udalak, eta haien mendeko erakunde autonomo administratiboak, toki-erakundeak, sozietate publikoak, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak. Barnean hartzen dira % 50eko edo hortik gorako parte-hartze publikoa (hala administrazio publiko bakar batena nola zenbaitena) duten erakunde guztiak.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62